

» DISKOA

Folkak ba ote du mugarik?



Iker Barandiaran

Galdemoduen trilogia

MUGALDEKOAK

Gaztelupeko Hotsak, 2017



Mugaldekoak taldeak Bera du ardatz. Handik bueltan sortu ziren kideak eta gainera, non bestela batzen dira propio mugen jatorrizko izendapena, musikarekin lotutako sen berezia eta poesia? Azken hori uste dut berezkoa dutela jatorritik harago, baina tira! Hiru-koteak hamalau urte beteko ditu aurki musika eta literatura batzeko asmoz ia oharkabean hasi zenetik: poesia liburu bat zuzenean aurkezteko nahia, pasio antzekoak eta anai-arreben antzeko loturak ez ditu ordutik banandu. Erritmoa, baina, patxadatsua da oso: 2006an *Biziago sentitzeak dakarren muga* disko-liburua kaleratu zuten eta horixe aitzakia hartuta hara eta hona bidaia ostean, 2012an *Begiak lekuko* lanarekin bueltan itzuli ziren, beste kultura eta koordenadako idazleen testuak guregana ekarri eta musikatu, apainduz, girotuz...

Orain berpiztu zaizkigu *Galdemoduen trilogia* besapean, eta guk berau mesanotxean beharko dugu izan, behar duen bezala patxadaz eta lasaitasunez disfrutatzeko.

Oraingoan ere folka dute oinarri, folk anitza, nahiz eta AEBetakoak gailentzen den.

16 pieza batu dituzte, galde-moduz, ironiaz eta zer-pentsaz jositakoak guztiak. Hausnarketa sana egiten dute eta sakona, arina baina sarkorra. Eta horiei apaingura leun eta dotoreak jantzi dizkiete. *Bizitzeko inbentarioa* countrytik abiatzen da, baina popetik ere edaten du. *Botika horizontala*-k cabareta, rock baziloia, Arthur Leeren arima eta surfaren dotorezia ditu baitan. *Etsaiak*-ek folk eta rockaren mugan, Petti herrikidea ekarri dit gogora; *Emazteki langilea*-n bere tamainan berpizten dena. *Beldurrak ez du barkatzen*-ek distortsioa erakartzen du. *Onddo bila*-k oinarritzko rock-and-rola bluesera amiltzen du. Erraz irudikatu dezakegu *Parpailaren koplak* piano alboan jarrita abesten. *Bi kopa bete* balada folky bete da. *Humup* Waitseroa; eta *Nire balentria* Frantziako zirkukoa. Eta, azkenik, *Gertatzen ez diren gauzak* dira Gari hillbilly-country kantu bat abesten entzutea. ■

Beñat Achiary Joseba Irazoki Julen Achiary

BAS(H)OAN

CD

DELOREAN

Mikel Laboa

CD/LP

Rafa Rueda

HIRI KRISTALEZKOA

CD

www.elkargitaletxea.eus **elkar**